



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 20  
Urtea/Año 2014  
Urtarrila/Enero

## ESKERRIK ASKO!



Baginen apur bat beldur, geure zuhaitz solidariorako aurten eskatutako gaiak iazkoak baino askoz ere espezifikokoak zirelako. Eta berriro ere erakutsi dugun elkartasuna paregabea izan da. Bildutako gaiak ezin dira kilotan neurtu, ondo zaindutako eta elikatutako haurren irribarretan baizik. Bihotzez eskertu behar dizuegu egoera txarrean dagoen jendearen munduarekin izan duzuen laguntza-erakustaldia; eta Sortazariri berriro ere beraiekin elkarlanean aritu ahal izateko eman ditugun aukera.



## VI NEGUKO BIDAIA

Neguko Bidaia zikloarekin atzo hasi ginela dirudi... Eta VI zikloan gaude dagoeneko! Oso zorionekoak gara maila honetako kontzertu-zikloaz geure etxean. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan, goza dezakegulako. Kontzertuak freskotasunez betetakoak eta atsegingarriak dira. Freskotasun horren osagaietako bat, dudarik gabe eta interpretatzaileen kalitateaz gain, duen kontzertu-solasaldi formatua da. Bere xedeen artean musikologia ikastea ez duen kontzertu-solasaldia; beharrezkoa balitz posible litzateke, baina batez ere musika onaz gozatzea ahalbidetzen diguten eguneroko gaietan murgiltzea du helburu. Zergatik musikari bihurtu edo erreperitorio bat eta ez bestelakoak aukeratu, lanen eta egileen pasadizoak... eta interpretatzaileenak ere.

Zuetako askok zoriondu eman dizkiguzue kontzertu hauengatik. Eskerrik asko zuen aintzatespenengatik. Antolatzen jarraitzeko lagundu eta motibatu egiten digu.

Aurreko urteetan legez, Eskolako irakasleek hartuko dute parte Ziklo honetan. Lehenengo kontzertuan, "Aula Boreal" taldearen kide gisa, Bego Candel gure tronpeta-irakaslea entzuteko aukera izango dugu. Laugarren kontzertuan, "Noguel Quartet" taldearen kide diren Nohemi Ladrón de Guevara biolin-irakaslea eta Miguel Salvador jazz-irakasleak entzungo ditugu. Seigarrenean, gure piano-irakaslea den Pia Rojasek piano-bikotea osatuko du Marian Hermosillarekin.

Datorren larunbatean, hilak 18, 19:30ean hasiko dugu zikloa gure Entzunaretoan. Aula Boreal taldearekin, gaur egun Bizkaian erreferentzia diren bi ganbera-abetesatza eta talde instrumental batez osaturiko elkarte da. Sartu web orrian eta irakurri egitaraua.

Ez izan zalantzarik eta etortzeko gonbidapenak eskatu. Zuen zain gaude.

## ZORIONAK!

Berriro ere Gorka Bordegaraik eta Joanes Atxak, abenduaren lehen egunetan Arrasateko Nazioarteko Akordeoi Txapelketan parte hartu zuten gure akordeoi-ikasleek, zilarrezko eta urrezko dominak lortu dituzte hurrenez hurren, aurkeztutako mailetan. Zorionak biei, eta irakasleari, Rafari, zerikusia izango zuelakoan...

Bigarren zoriona "Andrés Isasi" abesbatzarentzat, bertako tresnen taldeentzat eta jai-egun hauetan kale, egoitza eta lokaletan eskainitako ekitaldiekin hainbeste jendeari Gabonetaz gozaten lagundu dioten ikasle guztientzat da.

## LEHEN HIRUHILEKOAREN TXOSTEN PEDAGOGIKOAK

*Ikasle gehienek posta elektronikokoaren bidez jaso duzue lehen hiruhilekoari dagokion txosten pedagogikoa. Akats apur batzuk izan ditugu bidalketan, posta-helbide okerren ondorioa gehienak. Hurrengo egunetan zuzentzea espero dugu eta benetan eskertzen dizuegu zuen laguntza.*

## BA AL ZENEKIEN?

2013-14 ikasturtean, 92 beka eman ditugu guztira; hauetatik 50, 65 urtetik gorakoentzat izan dira. Emandakoa guztira 16.999,89.- € dira.

190 dira 118 familia ugariaren barne dauden ikasturte honetan hobaria jaso duten ikasleak. Hobarriaren zenbatekoa guztira 17.424,07.- €koa da.

## AGENDA

### Urtarrila

**Urtarrilak 18:** VI Neguko Bidaia 1. Kontzertua. **Aula Boreal.** 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Urtarrilak 22:** Haize-zurezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udal ikastetxeentzat eta 17:30ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.

**Urtarrilak 24:** Gitarra-ikasleen errezitaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.

**Urtarrilak 25:** VI Neguko Bidaia 2. Kontzertua. **David Salinas eta Claudio Constantini.** 19:30ean "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 5 €.

**Urtarrilak 31:** Piano-ikasleen errezitaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Entzunaretoan. 18:30ean. Sarrera doan.